

Textos dialectales de documentos religiosos vascos

3. Luzaide. Valcarlos

JOSÉ M. SATRÚSTEGUI

Luzaide, término que se diluye en bruma permanente de oscura lejanía, es leyenda transparente de amores bucólicos en la trama sentimental del joven pastor Luzaide y la esquiva Maitagarri, artífice caprichosa del viento y de las tormentas locales que fustiga desde su encumbrado trono de Anie (2.504 m.).

Valcarlos, al mismo tiempo, es también nombre propio inscrito con letra bermeja de sangre noble y héroes medievales en los pergaminos ahuesados de los cantares de gesta. Más tarde, dentro ya del lenguaje asequible de las fuentes documentales, la donación de todo el término a Leire por parte de Fortún Sanz de Yárnoz y de su esposa Ermisenda, hermana y cómplice en el luctuoso suceso del malogrado rey Sancho de Pañalén, inscribe la fecha de 1110 en la primera página del calendario histórico del valle.

Los catorce albergues o posadas que pronto fueron jalonando de trecho en trecho el largo y tortuoso camino que va desde el Antiguo Arranegui a Gorosgaray y Roncesvalles, estaban destinados a aliviar las penalidades y achaques de los usuarios que transitaban por una de las rutas más concurridas del peregrinaje compostelano. La tradición popular, pródiga en leyendas, intoxicada quizá por la pócima desabrida de ciertos relatos que llegaron a tener amplia difusión, refiere que los fundadores del poblado fueron catorce malhechores confinados por la Justicia a vigilar la frontera imposible de un territorio indiviso todavía en fechas tan remotas.

Curiosamente, cabe destacar los nombres de los caseríos Barcelona, París, Granada y Bordel (Burdeos), que configuran una parte del núcleo primitivo, como nota anecdótica del padrón municipal y posible punto de referencia al origen de algunos de sus antiguos moradores.

Pero, Valcarlos en su historia más reciente es también frontera política y administrativa con aduana y sellado de pasaportes. Esta circunstancia se refleja en los préstamos que la lengua francesa y el castellano van aportando al euskara de Valcarlos, que con la frontera lingüística de Ibañeta, sitúa el habla de los naturales en la modalidad dialectal de la Baja Navarra (Garaztarrak).

NICOLAS POLIT

El testimonio escrito del vascuence de Valcarlos que figura en este trabajo, nos llega de la mano de un hijo ilustre de Burguete. Los hermanos Francisco y Nicolás Polit fueron figuras destacadas del clero de navarra en el siglo XIX. El mayor de ellos, Francisco, nació en 1829 y, realizados los estudios eclesiásticos en el Seminario de Pamplona, obtuvo el grado de doctor en Teología por Valencia, dedicándose luego a la docencia como profesor de Filosofía y de Teología, sucesivamente, en el Seminario de Pamplona. Fue rector de este mismo centro, miembro de la “Comisión de Monumentos de Navarra” y académico de la Real Academia de la Historia. Rigió los destinos de la Real Colegiata de Roncesvalles en momentos azarosos, hasta que en 1887 renunció al cargo de Prior, para incorporarse como canónigo al cabildo de la Catedral de Pamplona, donde falleció en 1894.

Distinta pero no menos brillante fue la trayectoria de su hermano Nicolás, quien desarrolló en Valcarlos su meritoria labor pastoral, desde su ordenación sacerdotal hasta el año 1887, fecha en la que sucedió a su hermano como prior de Roncesvalles.

Su gestión en este último cargo resultó particularmente activa y lúcida tanto en el ámbito religioso como en la administración y gobierno de la casa. Implantó las nuevas Reglas que ordenaban la vida comunitaria y reinstauró el esplendor del culto, inexistente durante la dispersión provocada por imperativos de la reciente contienda. Reconstruyó con tesón los edificios seriamente afectados por la barbarie de las tropas acuarteladas y erigió nuevas dependencias como el cuerpo noble que alberga la biblioteca.

Faceta inédita del M.I. D. Nicolás Polit es la de los escritos vascos, que se habían conservado en un trastero de efectos personales. Llegué por casualidad cuando se procedía a desocupar la estancia para realizar trabajos de reforma, y me fueron entregados 71 documentos vascos que suman unas 334 páginas de distintos autores. Aproximadamente dos tercios de esa producción llevan el sello inconfundible de la exquisita caligrafía de Polit y el testimonio fidedigno del habla local que yo mismo he conocido en Valcarlos.

TEXTOS

Los textos que ahora se publican han sido seleccionados entre los trabajos breves y notas sueltas que figuran en el legado, al objeto de que la muestra resulte variada, al tiempo que el lenguaje directo de las observaciones pueda aportar un modelo menos rígido y formal que los temas doctrinales.

Desde el punto de vista del contenido no existe uniformidad entre los distintos apartados, pero coinciden en la información de carácter etnográfico que se desprende de los datos puntuales que aborda, y que reflejan el pensamiento y costumbres que hoy nos resultan, en gran medida, trasnochados.

El objetivo del trabajo sigue siendo, sin embargo, el aspecto lingüístico que trata de aportar a los estudiosos de la dialectología vasca las modalidades de Valcarlos.

I

Saludo y presentación en la parroquia

El primer apartado recoge en el estilo de la época las palabras del párroco ante su feligresía. No se trata de un trabajo original ya que algunos esquemas más o menos fijos que pasaban de mano en mano, se repetían en muchos casos.

En esta ocasión, concretamente, el sermón de entreda que N. Polit pronunció en Valcarlos es similar al que Echeverri dirigió en su día a los vecinos de Zugarramurdi. (1)

Resulta difícil de determinar si ambos se inspiraron en fuentes comunes o, si por el contrario, Polit conoció directamente el manuscrito de Echeverri que apareció entre sus escritos.

En todo caso, cada uno de ellos acomoda el texto a sus circunstancias personales y al estilo del habla local, lo que confiere especial interés a los mismos, para el estudio comparado de las variantes dialectales.

Ego sum Pastor. (Joan c. 10)

Egun presentatzen niz cien veguien aitzinerat; igan niz lecu untara, bana ez lehenagocotan bezala, cier predicatzeco predicadore encargatu bat bezala, baicican ya cien Parroco eta artzaina edo guidazalia bezala: bana jay! viotza icaratzen zaut au erraitiaz vera, eta icitzen niz ministerio edo Oficio ain pizu eta delicatu unen obligacioniaq consideratzen yarri-ta, eta oraino gueyago icustiaz ene buria, obligacione hoq behar den bezala complitzeco, J. Cristo, artzain gucien^s artzainaq, artzain un bat seinalatzen dazcon circunstancietaiq urrun.

¿Aurquitzen da ene baitan, ardiaq alimentatzeco behar den bezalaco ya quintasun ura? ¿Aurquitzen da ene baitan, ardiaq vide uneti q ibiltzerat, iguitu behar tien vertuteen argui clar ura? ¿Aurquitzen da ene baitan, ardiaz izan behar den condu eta vigilancia ura? ¿Aurquitzen da ene baitan, guisa vereco caritate, misericordia eta tendretasun ura?¹⁰ ¡Ah Salvazale divinoa! ¿Cein izan ote da, zuq eni erri untaco arimen direccionia fidatzeco designio edo fina? ¿Nola niq ereman dezaquet ene soin ain flacuaren gainian carga ain icaragarri au? ¿Cer satisfaccione emanen dauzut zuri ceure Tribunale ertsi artan, ene obligacione ain aundi oquin cargu eguiten dahazunian? ¡O Tribunalia, carga au artu bano lehenago vein bano gueyagotan icaratzen ninduzuna! ¡O Tribunalia, oray oso osoqui icitzen nuzuna, condenatuco bainiz, baldin zuq Yesus maitagarria ezpaduzu nitaz misericordia izaiten! Ceren necesario da ni pausuti q pausura erortzia, baldin ezpanuzu zure laguntzequin indartzen, eta (sendotzen) azcartzen zure graciequin.

Ezta exageracionia, E.A.M., erran dutana: icaratzen niz leitziaz Evanyelioan J. Cristoq, artzain un baten figuran, seinalatzen dazquidan obligacione eta

1. "Textos dialectales de documentos religiosos vascos" 1. Lesaca; 2. Zugarramurdi. FLV. 48 (1986) pág. 301.

circunstanciaq; eta circunstancia oon condutzen asteco eznu barniaq ere laguntzen, ceren aurquitzen nizan J. Cristoq artzain un baten baitan causitu behar di-rela erraiten tien calitate eta perfeccionetaiq urrun²⁰.

Behar du, dio J. Cristoq, artzain bateq, una izaiten bada, sartu, ardiaq diren toquirat, bortatiq, eta ez bertze lecutiq, eta bortatiq sartzen dona ura dela artzaina: Qui autem intrat per ostium hic est pastor ovium (Joan 10-2) Ytz oriequin significatu nahi izan cien J. Cristoq behar dela emplegu au artu Yaincoaren vocacioniaquin. Niq eztaquit bada segurqui vocacioniaren borta untaiq sartzeco, dudaiq gabeco acertuiq izan ote dutan: bacarriq daquitana da, vein bano gueyagotan escatu dacotala arguien Aitari, manifesta dezadan vere vorondatia: niq daquitana da examinatu tutala ere ene indarraq, empleguiaren obligacioniaq complitzeco gay ote ciren; eta hoq capable ez causitziaq, guibelarazten nindien; bana consideratzen yarri, niaurez yeuser ezezaquela eguin, bana bay gucia Yaunaren graciaiquin erraiten nacon neure burriari S. Pabloq erraiten cien bezala: Omnia possum in eo qui me confortat. Gucia dezaquet aren graciaiquin³⁰.

Bay etare artzainaq, una izaiten bada, behar du ardiaq vildiaq dauden toquitq atera, eta veraq yuan een aitzinian, dio J. Cristoq: Et cum proprias oves emisserit ante eas vadit. (Joan 10) Ytz oriequin ezautzera emaiten du behar diela eman vere ardier exemplu una eracutsiiq nuntiq behar duten ibili Siongo mendirat au da salvacioneco terminorat allegatzeco, ezarriq untaco een veguien aitzinian, practicatu, obratu behar tuzten vertutiaq, eta utzi eta abandonatu behar tuzten vicioaq, secula gucico gal ez titen. Behar dut veraz exemplu una eman; eceren guti valio izanen du ene itzazco eracustiaq, baldin ezpadu laguntzen exemplu unaq, baldin itzer ezpadute obreq corresponditzen, dio Aita Saindu bateq. Yduritzen zaut, oray artio, provisionalqui egon nizan demboran, ez tutala nebori eman exemplu gaisstoiq, Yaincoari gracia eta esquerraq; eta ementiq aitzina enehatuco niz exemplu una emaitera, ez ene baitan fidatuiq, baiciq gucia dezaquenaren gracietan⁴⁰: ceren neurez ¿cer dezaquet baicican erortzia pausutiq pausura, icusiiq erori direla ni bano gueyagocuaq? Erori cen S. Pedro bat, celaiq J. Cristoq vere Apostolutaco autatia; icusten dut Apostolu au ucatzen vere Yaincoaz eta aren baitan escandala sofritzen: icusten dut David bat, Yaincoaren viotzaren conformiteratu eguina, Yaincoaz Erreguetaco autatia; icusten dut erregue au 40 urte saindutasunian pasatu onduan vere becatiaiquin vere erri escandalizatzen: icusten dut Daviden seme Salomon bat, Yaincoaq vere yaquintasunaq manifestatze-co autatia, idolatrian eroria eta adoratzen Yainco falsiaq; icusten dut Sanson bat, icusten tut bertze anitz erortzen; ¿eta ez niz ni ere beldurtuco? Bana Salvazale divinoa, etzazula permititu; achiqui nezazu zure escutiq eta eguin zazu ni izan nabin erri unentzat salvamenduco videti q guidatzen dien exemplu unaren arguia⁵⁰.

Yrugarren ene obligacionia da velatzia, celatzia eta condu eguitia cien costuma eta vicitza maneraz: artzain unaq, dio J. Cristoq, ezartzen du peligratan vere vicia vere ardiengatiq, ez soldataingatiq cervitzatzen dienaq bezala, ceinaq edo cein peligrutan igues eguiten baitu eta abandonatzen ardiaq. Enehatuco niz ere obligacione unequin complitzera, valiitzen nizalaiq untaco ditutan erregletaz eta J. Cristoq seinalatzen dazquidanetaz, bana munduco errespetier (veiratu) soin gabe. Niq eztezaquet itzeman cer eguinen dutan guero, bana presentian egoiten ahal cizte segur ene osagarria, ene vicia, ene odolaren azquen chortarano

pertenecitzen zauciela: gucia sacrificatuco dut gustuiquin, baldin conseguitzen badut izan cizten guiristino unaq. Cien disposicionera aurquituco nucie ene cervichiaq behar tucien edocein orenetan: Aldarian, lecu untan, Penitenciaco tribunalian, cien echetan, cien desgracietan, aurquituco nucie beti disposatuiq cier consagratzera aita baten amodioa, izaitera cien guidazalia cien dudetan, cien proteccionia peligrutan, cien consolia afliccioneco orenetan⁶⁰. Ontan eztut yeusere eguinen baicican complitu ene estatuco obligacioneequin: eztira yeus izanen enetaco, obligacione oquin complitzeco sofritzen ahal tuan privacione eta trabailu guciaq, baldin izaiten badut consolia erraiteco egun batez Yaincoari: "Zuq eni fidatu cintien ardietaiq ezta bañore galdu, guciaq guidatu tut zure erresumaco edo salvacioneco terminora: finitu dut ene carrera, eta bacariq falta dut errecibitzia itzeman duzun justiciaco corona zure leguia complitzen dutener".

Hoq dira ene obligacione principalenaq, eta cienaq dira aitzia ene votza, complitzia eta obeditzia: yeusere eztu valio izanen ene votzaq edo mintzuaq, cieq ezpaducie aitzen, eta nahiz aituican ere ezpaducie complitzen. Ene obligacionetaiq bat izanen da ere cier catichima edo Erligioneco misterioaq eracustia, eta Evanyelio Saindia aplicatzia⁷⁰.

Zorionecua veraz ni, baldin causitzen badut ene obligacioniaq complitzen, eta zorionecuaq cieq ere, guiristino eguiazcoen obligacioniaq betetzen batucie. Niq dut obligacionia ciengatic otoitz eguiteco, bay etare cieq enegatiq eguiteco: niq eguinen dut ciengatiq otoitza, eta encomenda nezacie: ezar dezagun gucieq gure mira principalena gure arimen salvamendian, complitzen tugulaiq guiristinoen eta gure estatuco obligacioniaq; untan doo gure betico salvacionia, eta au ola ez eguitiaz gure betico condenacionia.

¡Oh Salvazale Divinoa? Zuq, Yauna, fidatu tuzu, cervitzari inútil, flaco eta miserable nizan uni, zure vicia eta odolaiquin erosi cintien arima maite hoq; niq behar dut otaz condu eman: eta baldin ene faltaz otaiq bacar bat galtzen bada, ¿cerequin paga dezaquet? ¡Cer satisfaccione eman dezaquet valioiq eztien arimaingatiq? Eztaila bada au guertatu: vezti nezazu, fidatu dazquidazun arima hoq salvatzeco behar tutan gracietaz, oquin trabaila dezatan zuri aimbertzte gosta citzaizquizun arimaq irahazten⁸⁰. Ar guitzazu veraz zure laguntza boteretsiaren azpian: niq entregatzen dauzut ene buria eta erri untaco arima guciena: lagun guitzazu guciaq lurrian; ampara guitzazu eriotzian, zure vitartecotasun boteretsiaiquin erdies dezagun gucieq betico gloria.

II

Santificación de los días festivos

El trabajo en los días festivos constituía un capítulo conflictivo del trabajo pastoral en la antigua disciplina eclesiástica. El párroco de Valcarlos no es una excepción a la regla que, por otra parte, obedecía a las directrices de los superiores que él tenía que acatar.

Con este motivo se reseñan aspectos concretos que afectan a la vida social, familiar y personal de los fieles, lo que aporta matices muy valiosos que permiten la aproximación real al pensamiento de la época en que se redactaron

Egungo Evanyelioaq erraiten daugu J. Cristoq sendatu ciela eri bat vesta egun batian, eta yudieq murmuratu zutela artaz obra ura eguin cielacotz vesta egunian; bana J. Cristoq eracustera eman ceen egun orietan devecatia izanican ere lanian artzia, etzirela defendiatiaq misericordiazco obraq, baicican contrara obra orieq direla vesta egunen santificacioneco parte bat. Unen vistan niq ere ezautzera eman gogo dauciet cein gaizqui complitzen den vesta egunaq santificatzeco obligacioniaiquin.

Vesta egunaq dira Yaincoaren ohoratzeco bertze egunetan bano gueyago; gorputzaq descansatzeco, eta trabailatzeco arimen gatiq. Ycusacie iru gauza orietan, certan empleatu behar diren vesta egunaq. Bana abatziiq guiristinoaq Yaincoaz eta vere arimetaz, eguiten dute gucia contrara¹⁰. Batzuq, empleatzen tuzte vestaq Yaincoaren ofensatzen etan lanian aizanez, bertze batzuq ofensatzen dute trabailatu gabe eta bertzeeq pasatzen tuzte aferquerian, eta ala obra saindiaq practicatzeq destinatiaq diren egunaq empleatzen tuzte becatu gueyago eta andioquen eguiten.

Batzuq ofensatzen dute Yaincoa lanian aizanez. Ycusten tugu anitz intresaz ain dominatiaq eta ain itsutiaq avariciaiquin nun, ustez faltatuco ceen dembora, austen tuzte vesta egunaq, erreservatzen tuzte piayaq egun saindu orietaco, eta Yaincoaren providencian ez fidatziagatiq, yeuseq eztee lucitzen, causitzen dira behar orduz betiaq eta esperimentatzen tuzte mila desgracia²⁰. Badira bertze batzu Yaincori bano gueyago errespetu dutenaq guizoner, eta artzen dira lanian adissquide bati ez faltatziagatiq, edo ura ez disgustatziagatiq; eta veren adissquidiaq disgustatu eta galdu bano nahiago dute disgustatu Yaincoa eta galdu veren arimaq; bana ala nahi badute conseguituco dute segurqui. Aimbertzetarano ofensatzen du Yaincoa vestetan lanian artziaq nun legue zaharran manatu cien viciaren quentzia arrica vesta egun batian egur zama bat vildu cien guizon bati. Lanaq iduri du ttipia, bana escandala eta exemplu gaisstua izan ciren arras aundiaq. ¿Eta cerengatiq iduritzen zaucie ain terriblia manifestatzen dela Yaincoa vestetan trabailatzen dutenequin? Ceren baita ingratasuniq aundieneco becatu bat, eta ingratasuneco becatiaq dira arras sensibliaq Yaincoaren yenerositatiari. ¿Yzan daiteque menturaz Yaincoa yenerosago guizonequin, eta gutiagoiquin contentatu? Gauza gucien Creazalia eta nausi soberanua delaiq, eztu erreservatu nahi izan veretzat astian egun bacar bat beciq, eta bertze seyaq ceditu izan tu gure provechu eta conveniencia temporalarendaco. Zazpi egunetaiq erreservatu du bat bacarra emplea dezagun aren ohoretan, eta au ere etzien erreservatu veretzat bacarriq, baicican ere gure utilitate izpiritualarendaco eta gure arimaren irahacitaco. Eman dauzquigu sei egun trabaila dezagun gorputzarendaco eta bat trabaila dezagun Yaincoaren eta arimarendaco. ¿Yzan cezaquen Yaincoaq (benignitate) pietate eta yenerositate gueyago? ¿Eta ezta izanen ingratasun aundi bat ez pagatzia fidelqui obligacione bat ain ttipia?⁴⁰ Ycusacie bada emen Yaincoaq mundu untara igortzentien punimendien causa. Yiten badira arri erauntsiaq, izaiten badira eritasun eta desgraciaq aciendetan eta esperimentatzen badira bertze anitz

calamitate erran dezaquecie (gucia dela) guciaq guertatzen direla vesta egunetan trabailatzen delacotz; ceren Saindu aundi bateq dion bezala eztira cesatuco munduco gaitz eta desgraciaq vestaq untsa santificatu artio. ¿Cer valio du eztitzacien eguin bertze egunetan eguiten tucien lanaq, baldin eguiten batucie bertze anitz gauza oraino gueyago ocupatzen ciuztetenag?

Badira bertze batzu trabailatu gabe Yaincoa ofensatzen dutenaq eta orieq dira vestaq empleatzen tuztenaq yocuan ez distraccionezco yocutan baicican yocu interesatietan, sobera edaten, yanza eta liverticionetan, ilun onduan ibiliz behar ezten maneretan, desonestquerietan eta veren pasione desohoragarriaq satisfatzen⁵⁰. Gauza orietaiq guztiz gueyenaq becatu dira edocein egunetan eta edocein ocasionetan eguin diten; bana vesta egunetan ¿eztaiteque erran anitzez aundio-guaq direla, ceren becatiaren maliciari (emendatzen) yuntatzen baita Yaincoari eguiten den inyuria particular bat, ura ofensatuz, aren ohorateco eta ari gure becatien barcamendia escatzeco destinatiaq diren egun veretan? Erran dezaquegu eguiazqui guiristinoen vestaq convertitu direla anitzendaco paganoen vestetan, eta Yaincoaren egunaq demonioaren egunetan. Etzaciela pensa espresione au enia dela: da Escritura Sainduco sententia bat niq pronunciatzen dutana ene vio-tzeco penaiq aundienaiquin⁶⁰. Escritura Saindian erraiten zaugu yinen dela dem-bora ceintan guizoneq adoratuco baitute becatia eta demonioa, eta becatiaren adoratzia ezta bertzeiq baicican vesta egunetan becatu eguitia, ceren ori da adoratzia eta cervitzatzia demonioa eta ez Yaincoa. ¿Ezta au egungo eguinian practicatzen dena? Orieq dira bada lanian aizan gabe becatu eguiten dutenaq eta Yaincoa ofensatzen.

*Badira bertze batzu egun orieq pasatzen tuztenaq aferquerian, eta hoq dira contentatzen direnaq bacarriq meza entzutiaz eta ura ere ahal duten comoditateiq aundienaiquin belaunico egon behar duten demboran yarruiq, ori yaquina, eta esquerraq oono ezpatuzte ofiaq ecartzen etzaniq entzuteco; een ideyen arabe-
ra apezag arras untsa eguin lezaque predicu laburroguag eguin balitza, eta obe-
qui oraino adverti baleza aitzinetiq cein mecetan predicatuco dien, predicuiq ez-
ten meza entzuteco.⁷⁰ presuna orieq erran dut contentatzen dira bacarriq meza
entzutiaz eta ura ere ahal bezain laburra eta ahal duten comoditateiq aundienai-
quin, eta guero egun gucia pasatzen dute conversacione inutiletan, itz aferretan,
otoitz errestoig eguin gabe, eta perezaz dominatiaq eztira ejercitatzten pietatezco
eta Erligionezco obretan. Entzunican ere vezpera ceiniaq, eztute yuan nahi ez in-
comodatziagatiq, edo ostatutiq ez ateratziaagatiq, edo veren solas, liverticione eta
distraccioniaq ez uztiagatiq, eta guisa untan inutilaq dira Yaincoaren eta veren
buriendaco. Presuna orieq nahiz eztuten becatu eguiten ain aundizqui nola la-
nian artzen direnaq eta vicio eta becatietan empleatzen tuztenaq, vizquitartian
ofensatzen dute Yaincoa Erligionezco obraq ez eguitiagatiq eta ez trabailatzi-
agatiq veren arimen favoretan⁸⁰. Arimaq condenatzen dira ez bacarriq obra
gaisstuag edo becatiaq eguitiagatiq, baicican bay eta ere obra unaq ez eguitiaga-
tiq. Eguia da vestaq direla descansuco egunaq bana gorputzarendaco ez arimain-
daco, ceren precisqui Yaincoaq manatzen du (Yaincoaq) descansa diten gorpu-
tzaq arimaq trabaila diten libertate gueyagoiquin.*

*¿Certan veraz empleatu behar dira vesta egunaq? Niq erranen dauciet. Ves-
taq, direnazgueroz Yaincoaren egunaq, empleatu behar dira modestia gueyagoi-*

quin otoitz devotetan, caritatezco obretan, fedezco esperanzazco eta contricio-
nezco actaq eguiten, Sacramendien errecibitzen eta bertze obra saindutan⁹⁰. Ba-
na guiristino gueyeneq eguiten dute gucia contrara: Eztute pensatzen Yaincoaren
baitan, ez veren arimetan, ez Elizan, ez otoitziaz ez etare Erligionezco bertze
gaucetan. Batzuq eztute pensatzen munduco aferetan, veren tratu eta interese-
tan, eta untasunen emendatzen beciq: bertzeeq eztute pensatzen liberticione, de-
sonestqueria, licencia, eta escandala suerte gucietan beciq; eta bertzeeq azque-
nian yeusetan eztute pensatzen baicican dembora pasatzia provechu eta funda-
mentuiq gabe. Eta ala orieq gucieq eztuzte empleatzen vestaq behar diren gaucetan,
baitira Yaincoaren ohoratzen eta veren arimaq salvatzen, baicican een con-
denatzen. Gauza bat da guciz nigargarría sei egunez trabailatu onduan gorpu-
tzaren favoretan, pasa ditzaten vesta egunaq veren arimen condenatzen¹⁰⁰.

Bana badira anitz veren falta eta avaricia disimulatzeo erraiten dutenaq,
obe dela yosten eta bertze lanetan artzia, eciq bertze gauza gaisstuoguaq eguitia.
Ezta ori discurrítzeco manera una. Eztira gauza orieq ez bertze gaisstuoguaq
eguin behar: secula eztaiteque gauza gaissto bat eguin bertze gauza gaissto bat
evitatziagatiq ere: ori da Yaincoaren leguia complitzia erdizca, eta Yaincoa qz-
tu olacoiq nahi. Niq badaquit cembait lanen eguitia beharrez, eztela becatu, be-
har ordia eguiaczua (balin bada) delaiq eta aitzinian nehola ere escusatu ahal
izan eztena; bana badaquit ere anitz gauza eguiten direla vicioz eta costumaz:
mement untan ezniz fixatuco vi lan clasetan beciq, yatecuen eguiteco eta bocataco
lanetan¹¹⁰. Lan orietan ¿cembait gauza eztira eguiten costumaz eta batre precisio-
neiq gabe? Niq eztauciet oray erranen lan orien eguitia becatu mortala den edo
veniala: niq erran eta sostengatzen dutana da gauza orieq eguiten direla gueyene-
tan vicioz, batere behar orduiq gabe eta bacarriq aitzinatiaq izaitiagatiq; ceren
edocein presuna prudenteq ar ditzazque demboraiquin precaucioniaq evitatzeco
gauza orieq eguin ditzen vesta egunetan: Yaincoa eguiazqui cervitzatu nahi die-
nari, etzazco faltatzen becatien evitatzeco moyenaq, eta Yaincoa q laguntzen du
eta inspiratzen; bana Yaincoaren leguia veiratziq casuiq eguiten eztutener, gu-
cia ateratzen cee gaizqui¹²⁰.

Veraz, E.A.M., nahi batucie icusi dembora urosoguaq, veirazquitzie obequi
vestaq. Bertzeeq egun orieq munduco aferetan eta untasunen emendatzen em-
pleatzen tuzten demboran, enseha cizte cieq empleatzera salvamenduco aferan.
Bertzeeq yocu liberticione eta vicioetan empleatzen tuzten demboran, aparta ciz-
te cieq compañia gaisstoetaiq, eta yin cizte Elizara cien Creazaliaren adoratzera
eta esquerraq emaitera eguin dauzquicien beneficioez. Eta bertzeeq eguna afer-
querian pasatzen duten vitartian traballa zacie cieq cien arimengatiq, escazacie
Yaincori cien becatien barcamendia empleazquitzie otoitzian eta Erligionezco
bertze obretan, eta baldin gauza orietaco ezpacizte yiten ahal Elizara¹³⁰, eguin
zacie Eliza cien echetaiq etan practicatuz cien devocioniaq familiaiquin, ceren
Yaincoa orotan causitzen da present eta lecu gucietan entzutten tu ari viotzez ade-
rezatzen direnaq, amorocatican eta vicitza untan vestaq sainduqui celebratu on-
duan celebra dezacien Cerien glorioco vesta eternala*.

* 20-27 Octubre 1872. 1.ª.

26 Noviembre 1871. 2.ª.

III

Perseverancia

El capítulo correspondiente a la perseverancia no fue escrito en el orden que aquí presenta. Se trata de notas y adaptaciones que fue introduciendo el autor con motivo de la repetición de otro trabajo más completo en distintas circunstancias. Recopiló, sin embargo, las aportaciones circunstanciales en una única relación y de ella se han tomado estos datos estableciendo por nuestra cuenta el orden de los párrafos que consideramos más lógico.

Se ha respetado, por supuesto, la redacción original, evitando en lo posible los textos reiterativos.

Egungo Evangelioaq erraten digu nola J. Cristoq bota zuen demonioa guizon mutu baten gorputzetaq, eta nola guizon ura mintzatzen asi cenian, guelditu ciren admiratuiq milagroa presenciatu zuten guciaq. Esplicatzen digu ere nola dabilan demonioa, guizona abandonatzen duenian descansuiq ecin vilatuz, eta eguiten duela izanal daitequen esfuerzoiq andiena guizon pobre aren barnerat berriz sartzeco. Allegatzen da demonioa; aurquitzen du guizon ura garbitua vere becatuetaiq eta graziaz veztitua, eta igues eguiten du edo urrunten arenganiq: baña alaere, eztu vere empeñua uzten, baiciq artuiq lagunten du edo urrunten arenganiq: baña alaere, eztu vere empeñua uzten, baiciq artuizlaguntaco bertze zazpi demonio vera baño gaisstuagoaq, atacatzen du guizonaren contra, sartzen da aren barnian, eta guelditzen da guizon pobre ura, len baño gaizquiago. Fiunt etc¹⁰.

Ycusacie cein claroqui ezautzera ematen digun J. Cristoq errecaida edo reinicienciaco becatuaq uzten duela guizona len baño gaizquiago. Bay, E.A.M., baldin idequitzen batiozue zuen viotzeco atariaq, zuenganiq bota cinuten demonioari; eztucie au berriz botaco zuey iduritzen zaizuen errachtasunaiquin... vein confesatu eta becatuen barcamendua logratuz gueroz, eguiten baducie uso gaissto bat zueq errecibitu cinuten graziaz eta paratzen zuen becatuen errecaidequin traba verriq zuen salvacioniari; izanen da zuen azqueneco estadoa, lemicicoa baño gaisstoagua J. Cristoq declaratatu zuen bezala gaurco Evangelioan: Fiunt..²⁰ eta au vera manifestazen du S. Juan Crisostomoq vi arrazoyequin: lemicicoa, becatua erreverritziaiquin izanen ducie escusa gutiago, eta eguinen zarate len baño gaisstoaguaq: eta vigarrena, becatua erreverritziaiquin, eguinen ducie Jangoicua egotia gutiago disponitua barcatzeco. Claroago: zuen becatuen errecaideq eguinen dute andiagua zuen maldadia: major iniquitas zuen becatuen errecaideq eguinen du dificilagua ayen barcamendua: difencilior venia. Ycusten dut sobera luzatu viar nuquela vi punto orieq tratatzeco, eta orrengatiq bacarriq mintzatuco naiz egun lemicicoaz utziq bertzia eldu den igandeco³⁰.

Niq daquitana da mundu untan vici gareño eztela cer vilatu firmeza edo firmezatasuniq gure pausuetan, ez eta ere estado batian irauteiq. Ya erortzen gara becatuan; ya alchatzen gara graciarrat: batzuetan atratzen gara becatutiq edo de-

monioaren esclavotasunetiq Jangoicuaren alabatzeco eta himno sagraduaq cantatzeco; eta bertze batzuetan uzten dugu Jangoicuaren cervitzua, munduco eta becatuen vesta libre eta licenciosuetara gure buruaq entregazeco: dembora batian ofrecitzen diogu Jangoicuari sacrificioan gure viotz arrepentitu eta humillatua; eta bertze batian sacrificatzen diogu munduco creatura torpeza eta vicioey⁴⁰.

Gende tropa andi bateq seguitzen ciola J. Cristori, dio gaurco Evangelioaq. Gende orieq, J. Cristo aditzeco zuen deseoz, etzen yati az oroitzen, ez eta ere casuiq eguiten; eta icusiiq J. Cristoq ya gosetu cirela eta etzutela yatecoiq desertu artan, ayetaz urricalduiq artu cituen presentatu citioten 5 ogui eta vi array, benedicatu cituen, eta erran vere discipuluey erreparti citzaten gende guciaren artian. Distribucionia eguiten ari ciren vitartian, ogui orieq multiplicatu ciren alaco moduan nun, 5.000 persona baño gueyago ase ta onduan sobratu ciren oraño 12 sasqui ogui... Orrengatiq Evangelio unen arabera erran behar nuque cerbait Comuioneco Sacramentuaren gañian; bana fite izanen baitut Sacramentu untaz mintzatzeco ocasionia uzten dut Evangelioaren doctrina au, continuatzeco juan den Ygandian egungo zuey proponitu nuen asuntua. Orduan erran nuen eta probatu zuen etc.

Bada baque eta tranquillitate bat mundiaq guizonari eman ezezaquena, eta ceina gabe inutilqui pretendi guinezaque tranquil lurrian vicitzia; baque bat preferabilia dena munduco untasun gucier, ceren ecartzen dauzquigu galtzen ahal eztiren eternitateco untasunaq; baque bat infinitoqui valiosa eta asqui estima eztaitequen preciosa, denazgueroz Yaintco-guizonaren vicia eriotzia eta odolaren fruitia. Au da Evanyelioaq proposatzen daugun baque eta tranquillitaa J. Cristoq piztu onduan vere Apostolier utzi ciena Cerurat igan bano lehenago, eta guiristino fidel guiciaq logra dezaquetena Penitenciaico Sacramendiaren medioz. ¡Ojala veraz niq cieq instruitu behar vidian pundu untan aleguera ahal banindaiteque ciequin! Bana erreflexione untsa tristiaq contrariatzen dute ene izpiritian egui consolagarri au⁵⁰. Eztaiteque dudatu Yaincoaren baque eta tranquillitate au fundatzen dela Penitenciaico Sacramendian: niq badaquit bertze alde cietaiq gueyenaq, malurosqui ez guciaq, cofesatu ciztela Bazco demboran, ceren badaquicien Confesionia edo Penitenciaico Sacramendia dela becatian erorizgueroz artaiq alchatzeco artaiq ateratzeco erremedio bacarra. Bana ¿cer daquit niq, Yaincoaren misericordia cien nigarrequin Bazco demboran escatzen ducien orieq, viar inconstanciaiquin galduco eta despreciatuco ducien aren gracia eta adisquidantza? ¿Cer daquit niq, cien vertutia izanen ote den vertuteen eta vicioen continuoco inguru bat, Yaincoa cervitzatzeco itz emaitiaren eta itz ori porroscatziaren, becatien eta confesione menturaz sacrilegüen veinere finitzen ezten inguru bat⁶⁰. Niq daquitana da, baldin idequitzen badazcocie cien viotzeco borta q cienganiq bota cinuten Ynfernucio etsayari; eztuciela au verriz botaco cier iduritzen zaucien errachtasunaiquin. Niq pensatzen dutana da vein cofesatu eta becatien barcamendia logratuz gueroz, eguiten baducie usaya gaissto bat cieq errecibitu cinuten graciaz, eta ezartzen cien becatien errecaidequin traba verriaq cien salvamendiari; izanen dela cien azqueneco estatia, lehemicia bano gaisstoagua, J. Cristoq Evangelioan declaratu cien bezala: Fiunt novissimo hominis illius pejora prioribus⁷⁰

Eztaiteque dudatu Yaincoaren baque eta tranquillitate au fundatzen dela Pe-

nintenciaco Sacramendian, ceina guciaq obligatiaq baiguira errecibitzera Bazcotan. Bazco dembora finitu da ¿norq complitu du Bazcoequin? Eguia da badirela anitz complitu tuztenaq, bana guisa verian badira anitz complitu eztutenaq, parte eztirenaq urbildu Sacramendutara ez eta ere aingotiq intencioneiq presentatzeco; parte urbildu direnaq, bana ez behar den disposicioneequin, dolutu gabe vere becatiez eta obequi vicitzeco deliberacione fermu bat artu gabe. Vizquitartian gucieq salvatu gogo dute, eta veren ustez tranquil vici dira; bana orien baque eta tranquillatua ezta eguiaczua Yaincoaq eta Evanyelioaq proposatzen dauguna⁸⁰. Ceren ¿certan fundatzen ahal dute tranquillitate ori? Gorena erran dezaquete: Yaincoa misericordios da eta cembat nahi becatu eguin dezagun eztugu eguinen Yaincoaq barcatzen ahal ezteniq: seguitu nahi dut veraz oray becatian eta guero eriotzeco orenian convertituko niz; erranen dut Davideq bezala Yauna becatu eguin dut, eta Yainco guciz un areq ceinaq ezpaitu nahi becatarien condenacionia izanen du nitaz pietate eta salvatuco niz. ¡Ah miserabiliaq! Eztezaten bada disculpaiq presentatu Yaincoaren aitzinian verer vicitza gaisstuaeren estatiaz, vanua egun untan declaratzera een eriotzia izanen dela vere vicitza gaisstuaeren arabera: Sicut vita finis ita⁹⁰.

Evanyelioaq erraiten daugu J. Cristoq piztu onduan ilen artetiq cerura igan bano lehenago erran ciela vere Apostolier: Dembora gutiin barnian eznuicie icusico. Au vera erraiten du egun guciez becatarier: Niq ichuri nien ene odola eta eman ene vicia cien salvamendiarengatiq; egun guciez conuitatzen ciuztet ene misericordia eta graciaiquin, eta cieq despreciatzen tucie aimbertze beneficio: erretiratuko niz veraz cienganiq: guero eriotzeco orenian vilatuko nucie, nahico ducie convertitu, bana eznuicie errecontratuko eta ilen cizte cien becatian. Evanyelioaren ideya unequin conformatuz, vanua egun declaratzera becatari orien eriotzia izanen dela vere vicitza gaisstuaeren arabera. Sicut vita finis ita¹⁰⁰.

Ecín gloriatu gaitzque Jangoicuaq guri ematen tigon graciaez, ezgaitzque ere quejatu guri gracia au ucatziaz, cergatiq graciai deitzen zayo gracia, S. Agustineq dionaz, ceren den Jangoicuaren favore bat gure merecimentuenganiq dependitzen eztuena, guq merechi gabe ematen zaiguna: ez lasterca dabilanaren ez eta nahi duenaren escuan dagona baiciq guciz poderosuaren escu liberal eta pancuan dagona. Niborquere, naiz dela justua, nahiz dela becataria, eztu derechoiq Jangoicuaren gracia untaraco, eta dudaiq gabe gutiago dute, vere becatuaq erreverrituiq, gracia untaz uso gaisstoa eguiten duten personeq¹¹⁰.

IV

Bula de la Cruzada

La promulgación de la Bula de la Cruzada con la exención en buena medida de la disciplina eclesiástica del ayuno y abstinencia como medida más destacada de la limosna institucionalizada, se efectuaba preceptivamente cada año al comienzo de la Cuaresma.

El capítulo de indulgencias y gracias espirituales que reportaba, por otra parte, fue introduciendo distintas concesiones que llegaron a formar un catálogo abigarrado de prácticas piadosas.

Proponemos este documento como testimonio socio-religioso que entra en el contexto del trabajo.

Egunda bularen publicacionia eta orrengatiq nua esplicatzera bularen privilegio eta gracia principalenaq eta cer condicioniaq necesario diren indulgenciaq irazteco eta privilegioen gozatzeco.

Nahiz Sacramendu Saindien medioz Yaincoaq barcatzen dauzquigun gure becatu guciaq eta libratzen guiren eengatiq merechi izan dugun Ynfernucó secularo pena artaiq, vizquitartian guelditzen da cerbait pena temporalá, becatu orien arabera, pagatu behar dena edo mundu untan penitencian eguinez edo (bertzian) Purgatorioan. Bana compadecituiq Yainco misericordios ura gure miseria eta flaquezaz, utzi (zaugun) cien bertze medio bat pena orien barcamendia erdiesteco, J. Cristo eta Saindu gucien meritoaq aplicatuz indulgencien medioz¹⁰. Yndulgencia orieq batzuq dira totalaq edo plenariaq ceinequin barcatzen baita pena gucia yeusere guelditu gabe pagatzeco eta bertziaq parcialaq ceren ezpaita barcatzen parte beciq pena orietaiq. Pundu unen gainian da bularen lehemicico gracia, ceren bulaq conceditzen du garizumaco egun gucietan indulgencia plenaria bat visitatuz bortz aldare edo bat bortz aldiz. Visita orren eguiteco asqui da errezatzia iru Aita guria Agur Maria eta gloria. (Adviértase que es necesaria la Confesión y Comunión) Yndulgencia plenaria ori irahazten ahal da bertze anitz egunez garizumaz landa bulaq veraq marcatzen tienaq 94 etarano²⁰ eta egun orietaiq amarretan irazten ahal dira vi indulgencia plenaria bat vere arimain favoretan eta bertzia veraq nahi dien Purgatorioco arimen favoretan; bana indulgencia orien eta edocein indulgencia irazteco precisqui egon behar da graciazco estatian. Bertze alde bulaq conceditzen du urtian bein bertze indulgencia plenaria bat confesatzen eta comuniatzzen direner. Yndulgencia ori iraz dezaque vacochaq nahi dienian, bana obe litzateque forma dezacien intencionia aplicatzeco eriotzeco orenian ceren vein irahaciz gueroz indulgencia ori eztaiteque verriz aplicatu urte artan nun ezten bertze bula bat artzen³⁰. Eriotzeco orenian ezpadu ere demboraiq coosatzeco eta comuniatzeco verdin irahazten ahal du indulgencia plenaria au balin badu desira cofesatzeco eta graciazco estatian yartzen bada contricionezco acta baten medioz. Procuratu behar ducie veraz bula artzen ducienian formatu intencionia indulgencia unen irazteco eriotzeco orenian eta tenore artan aplicatu onduan batere becatuiq eguin gabe iltzen bada yuanen da Cerura batere Purgatorioan egon gabe. Vizquitartian bertze bula publicatu bano lehenago procuratu behar cinuquete indulgencia ori irahaci eta ez inutilizatu gracia ori. Yndulgencia plenariez landa conceditzen tu bulaq bertze anitz indulgencia parcialaq, principalqui 15 urtein indulgencia barur eguiten dutener devocionez Aita S. itencionera⁴⁰. Amabortz urtein indulgencia irahaztia eztu erran nahi barcatzen dela 15 urtein Purgatorioa baicican barcatzen dela aimbertzé pena nola barcatzen baita 15 urtez lehenagoco penitencia publicoa eguinez. Bularen vigarren privilegioa da aragui yateco permisionia. Zozpi urte bete tuzten presuna gucien-

daco defendiatia da garizuman varur egunetan eta ortzilare gucietan araguiaren yatia, eta bertze alde garizuman eztaiteque yan ez esneiq edo esnezco gauzaaiq ez etare arroltzeiq⁵⁰. Cruzadaco bula duteneq yandezaqueete esnia eta arrolzia egun guciez batere escepcioneiq gabe bana araguiain yateco permissionia izaiteco behar da artu araguizco bula nun eztiren presuna pobriaq posibiliteiq eztutenaq bularen pagatzeco: orieq asqui dute artzia Cruzadaco bula eta yandezaqueete aragua bi bulaq tuzteneq bezala Aita guria eta Agur Maria bat erranez privilegio au usatzen dutenian, bana nehor ezta escusatzen Cruzadaco bula artzeti: eta ezta asqui bula artzeco intencionia; behar da precisqui artu eta presunaren icena ezarri nahi badu privilegio orietaz gozatu. Escusatzen niz erraiteti defendiatia dela bula diteneadaco ere araguiain yatia eldu den asteazquenian garizumaco ortzilare gucietan eta aste sainduco etc⁶⁰.

V

Orreagako Amaren prediku ttipia

Queda indicado al principio, que el autor de estos trabajos fue Prior de Roncesvalles. Hay varios panegíricos de la patrona de la Montaña, pero es difícil determinar si fueron pronunciados durante su mandato en la Colegiata, o como predicador extraordinario siendo párroco de Valcarlos.

El texto que se transcribe a continuación podría ser de la última etapa de su vida, ya que en la ortografía bien cuidada de sus escritos se introducen ligeras modificaciones que se adaptan mejor a la evolución del lenguaje.

Oculi mei erunt aperti, et aures meae erectae ad orationem ejus qui orarent in loco isto. II Palip. c. 7 v. 19.

Ene veguiac egonen dira idequiac ete prestatuac ene veharriac lecu untan ene oinetara auspescatzen denaren oitoitza entzuteco.

Mundu untan vici guireno sofritzen tugun aimbertze pena (nahigabe) afliccione eta desgracien artean, eta gure carreraren terminora urosqui eltzeco ditugun aimbertze irriscu eta etsayen artean, da gauza bat ecin gueyagó consolagarria yaquitea badugula Ceruan Ararteco boteretsu bat continuoqui interesatzen dena gure gatic gure miseriez urricaltzen dena protegitzen gaituena etsay gucien contra eta gucier behatcen duena Ama on baten amodio eta tendretasunarequin. Bana guciac consolatzten ahal badira Virginia Mariac vere devoter dispensatzen duen proteccioneaz oroituz, arrazoin gueyagorequin consolagaitzque egun Eliza untan Orriagaco Ama Virginaren visitatzera vildu guiren guciac:¹⁰ ceren nahiz Yaincoaren Amac eguin izan tuen dembora eta lecu gucietan eta presuna suerte gucier ecin estimatuzco gracia eta favore aundi, vizquitarte erran dezaquegu nehon eztituela ichuri aimbertze yenerositateiquin nola Eliza Saindu untan, ceintan fijatu baitzuen vere egoitza eta yar lecu vere gloriaren centro batean bezala. Emen laguntzen tu eta favoratzen bertzetan ez bezala, viotzez deitzen du-

ten guciac: (emen betetzen tu vere devotac ecin condahala gracia favore eta merchedez), eta emen erran zuen gure aitzinecoer Yaincoac Salomoni erran ciona dedicatu zacolaric Yerusaleneco Templo aundia:²⁰ “Ene veguiac egonen dira idequiac eta prestatuac ene veharriac lecu untan ene oinetara auspescatzen denaren otoitza entzuteco. Oculi mei erunt... Bay E. A. M. Aldare ortan dugu Orriagaco Mariaren Ymagina miragarria: or dugu gure Ama ona: Vere veguiac beti daude idequiac gure behar orduac icusteco: vere veharriac beti daude prestatu ac deitzen dutenen otoitzac entzuteco; eta bere viotza beti dago preparatua vere devotac ecin condohala gracia, favore eta merchedez betetzeco. ¿Nahi ducie presenta ditzatan egui consolagarri unen prueba edo arrazoinac? Nai bada manifestatuco dauciet Ymagina sacratu ori aguertu cen mementu veretic badugula Eliza untan Ama on bat, beti prestatua dagona gure behar orduac socorritzeco. Ezautzera emanen dauciet Eliza untara etortzen diren guciac imploratuz Virginia Mariaren protecione eta laguntza, eztirela beinere itzultzen desconsolatuac³⁰.

Digna zaite, ¡oh Ama guciz amultsua! digna zaite ene adimenduaren arguitzea, zure gloria eta laudorioac publicatzeco, ez zuc merechi duzun bezala, ceren ori imposible baita ene indarrer eta ene ezautza ttipiari, baicican conveni den bezala inspiratzeco ene adizale gucietan zureganaco devocione vici bat eta confianza oso bat zure baitan. Gracia au escatzen dauzugu guciec salutatzen zaitugularic Gabriel Aingueruaren itzequin. Agur Maria.

Consentitzen dut eztain aipa Orriagaco Virginia Mariaren amultsutasun edo ontasunaz, balin bada bat bacarra deitu duena vere behar ordutan, consolatua izan gabe⁴⁰. Eztayela gueyago urbildu arengana, viotz gogorrecoa dela experimentatu duenac. Becatariac arras aisa causi dezaque Yesus onaren baitan vitarte serios bat, ceren den Juez edo Yuyazale justo eta zucena, Yaincotasunari eguiten diren ofensac mendecatzeco encargatua: bana Virginia maitagarri ortan... amodio pietate eta amultsunaren Ama ortan fijatu du vere egoitza Yaincoaren misericordiac verac: orri gomendatu zayo guizonac gracia eta (benef) merchedez betetzeco cargua. Orriagaco Ama Virginac ezarri du vere yar-lecua Eliza untan, laguntzeco vere devotac ala urostasunean nola desgracian, een pausuac urbildanic icusteco, entzuteco een otoitzac eta vere behar ordu guciac erremediatzeco. Aldare ortan daucacie vitarte ezti batequin: guciac deitzen tu, gucier ofreditzen da, nebori eztu errefusatzen escatzen zaizcon gracia; eta bertzenaz mintza bedi Virginia miragarri ori vilatu eta aurquitu eztuenac, galdequin (escatu) eta errecibitu eztuenac, orren oinetara auspescatu eta yaiqui dena consolu eta laguntzaric izan gabe vere penetan.

¿Dudatuco dute menturaz Yaincoaren Ama orren ontasun eta misericordiaz, vere pasioneac nausitzera utziric, Ynfernucio etsaya... Oroitz zaizte cien gura-soetaz eta imitazquitzie Ymagina miragarri orri izan zuten devocionean veren behar orduac erremediatzeco. Hec izan ciren beti esquer onezcoac errecibitu zuzten gracier: hec utzi zuzten Eliza untan aimbertze oroitzapen ezautzera emaiten zutenac Ama on orrec vere devoten favoretan eguin cituen gauza miragarriac: airtortu zuten publicoqui Ymagina (saindu) sacratu orri gomendatuz conseguitu zuztela Yaincoarenganic gracia eta favore extraordinarioac: hec edatu zuten Orriagaco Virginia Mariaren devocionea; etaz educatuac izan cineten devocione ortan verean, eta il ciren consolaturic consideratuz guelditzen cinetela Ama on

orren proteccionearen azpian. Yzan zaizte veraz cien aita-amen, cien gurasoen, cien aitzinecoen fidelac eta Orriagaco Virginia Mariaren devotac⁷⁰. Urbil zaizte Ama orren gana: vere veguiac idequiac daude cien behar orduac icusteco; prestatuac vere veharriac deitzen dutenen otoitzac entzuteco, eta vere viotza beti preparatua vere devotac ecin condahala gracia favore eta merchedez betetzeco. Urbil zaizte intencione sainduarequin pietatezco tronu edo yar lecu ortara ceintan espe-ratzen baitziuzte Yaincoaren escutic atera den Ama maitagarrienac eta icusico ducie nola izanen cizten artaz protegituac eta lagunduac, icusico ducie complituac cien esperanzac eta satisfatuac cien guticiac, icusico ducie arrazoin dutala erraiteco eta segurtatzeco nehorc eztuela imploratu Orriagaco Ama Virginaren proteccio-neia consolatua eta lagundua izan gabe⁸⁰.

VOCABULARIO

- ACHIQUI. *achiqui nezazu zure escutiq* (1.48).
 ADIMENDU. *digna zaite ene adimenduaren arguitzen* (5.31).
 ADIZALE. *ene adizale gucietan* (5.35).
 AFER. *egun gucia pasatzen dute conversacione inutiletan, itz aferretan* (2.73).
 AFERA. *egun orieq munduco aferetan eta untasunen emendatzen empleatzen tuzten demboran* (2.122).
 AFERQUERIA. *eta bertzeeq pasatzen dute afequerian* (2.12); *bertzeeq eguna aferquerian pasatzen duten vitartian* (2.127).
 AHATZI. *bana ahatziiq guiristinoaq Yaincoaz* (2.9).
 AINGOTIQ. *eztirenaq urbildu Sacramendutara ez eta ere aingotiq intencioneiq presentatzeco* (3.75).
 AITZIN. *egun presentatzen niz zien veguien aitzinerat* (1.1); *eta obequi oraino adverti baleza aitzinetiq cein mecetan precicatuco dien* (2.70); *aitzinatiaz izaitiatig* (2.115).
 AMOROCATICAN. *ari viotzez aderezatzen direnaq, amorocatican* (2.13).
 AMULTSU. *oh Ama guciz amultsua* (5.31).
 AMULTSUN. *amodio pietate eta amultsunaren Ama ortan fijatu du vere egoitza* (5.45).
 APARTECO. *Yaquitea badugula Cernan Ararteco boteretsu bat* (5.6).
 ARIMA. *trabailatzeco arimen gatic* (2.9).
 ARRAS. *Becatariac arras aisa causi dezaque Jesus onaren baitan* (5.41).
 ARRAZOIN. *egui consolagarri unen prueba edo arrozoinac* (5.27).
 ARROLZE. *Cruzadaco bula duteneq yandezaquete esnia eta arrolzia* (4.51).
 ARTZAIN. *Ya cien Parroco eta artzaina edo guidazalia bezala* (1.3).
 AUSPECA(TU). *ene oinetara auspezcatzen denaren otoitza entzuteco* (5.2); *orren oinetara auspescatu* (5.54).
 AUTA(TU). *Apostolutaco autatia* (1.4); *Yaincoaz Erreguetaco autatia* (1.44).
 BAITAN. *Aurguitzen da ene baitan...* (1.8).
 BARNE. *Dembora gutiin barnian eznucie icusico* (3.92).
 BAÑO. Bat. *Zuq eni fidatu cintien ardietaiq ezta banore galdu* (1.63).
 BEHA (TU), ZAIN(DU). *gucier beharzen duena Ama on baten amodio eta tendretasunarequin* (5.9).
 BEHAR ORDU. *causitzen dira behar orduz betiaq* (1.20); *batere behar orduiq gabe* (2.114).
 BOCATA. Lixiba. *bocataco lanetan* (2.110).
 BORTA. Atea. *cien viotzeco borta* (3.61).
 BOTERETSU. *arguitzazu veraz vere zure laguntza boteretsiaren azpian* (1.82).
 BULA. *Egunda bularen publicacionia* (4.1).
 CAPABLE. *eta hoq capable ez causitziaq, guibelarazten nindien* (1.28).
 CATICHIMA. *Ene obligacionetaiq bat izanen da ere cier catichima edo Erligioneo misterioaq eracustia* (1.69).
 CAUSI(TU). Aurki(tu). *causitzen dira behar orduz betiaq* (2.19).
 CEINIA. *Entzunican ere vezpera ceiniaq, eztute yuan nahi* (2.75).
 CEINTAN. *ceintan fijatu fijatu baitzuen* (5.14).
 CERVICHU. *Cien disposicionera aurquituco nucie ene cervichiaq behar tucien edo cein orenetan* (1.58).
 CERVITZA(TU). *ez soldataingatiq cervizatzen dienaq bezala* (1.53); *Ceren ori da adoratzia eta cervitatzia demonioa* (2.63).

- CHORTA. *ene odolaren azquen chortarano perteneitzen zauciela* (1-56).
- COFESA(TU). *Cofesatzen eta comuniatzen direner* (4.25).
- COMPLI(TU). *icusico tucie complituac cien esperanzac* (5.77).
- CONDAHALA. *vere viotza beti dago preparatua vere devotac ecin condahala gracia, favore eta merchedez betetzeco* (5.27).
- CONDU EGUIN. *Yrugarran ene obligacionia da velatzia, celatzia eta condu eguitia cien vicitza maneraz* (1.51).
- CONSOLU. *cien consolia afliccioneco orenetan* (1.60); *baldin izaiten badut consolia erraiteco* (1.62); *Yaiqui dena consolu eta laguntzaric izan gabe vere penetan* (5.55).
- CONTRARA. *bana guristino gueyeneq eguiten dute gucia contrara* (2.91).
- CONVENI. *baicican conveniden bezala* (5.34).
- COOSA(TU). *Eriotzeco orenian ezpadu ere demboraiq coosatzeco eta comuniatzeco* (4.31).
- COSTUMA. *Ohitura. Condu eguitia cien costuma eta vicitza maneraz* (1.51).
- DEFENDIATU. *Debekatu. etzirela defendiatiaq misericordiazco obraq* (2.5); *Zazpi urte bete tuzten presuna guciendaco defendiatia da garizuman...* (4.48).
- DESOHORAGARRI. *veren pasione desoboragarriaq satisfatzen* (2.50).
- DISPOSU(TU). *aurquituco nucie beti disposatuiq* (3,76).
- EDA(TU). *hec edatu zuten Orriagaco Virgina Mariaren devotac* (5.70).
- EGOITZA. *Ama ortan fijatu du vere egoitza Yaincoaren misericordiac verac* (5.46).
- EMENDA(TU). *Gehitu. becatiaren maliciari (emendatzen) yuntatzen baita Yaincoari eguiten den inyuria* (2.53).
- EMPLEGU. *behar dela emplegu au artu* (1.24); *empleguiaren obligacioniaq complitzeco* (1.28).
- ENSEHA. *enseha cizte cieq* (1.123).
- ERDIES. *Erdies dezagun gucieq betico gloria* (1.83).
- ERRECAIDA. *zuen becatuen errecaideq eguinen dute andiagua zuen maldadia; major iniquitas; zuen becatuen errecaideq eguinen du dificilagua ayen barcamendua: dificilior venia.* (3.25).
- ERRESTO. *itz aferretan, otoitz errestoiaq eguin gabe* (2.73).
- ERRESUMA. *guciaq guidatu tut zure erresumaco edo salvacioneco terminora* (1.63).
- ERTSI. *Estu. Ceure tribunale ertsi artan* (1.13).
- ESCRITURA SAINDIA. *da Escritura Sainduco sententia bat...; Escritura Saindian erraiten zaugu* (2.50).
- EZAUTZA. *ene ezautza ttipiari* (5.34).
- FINA. *Zuq eni erri untaco arimen direccionia fidatzeco designio edo fina?* (1.11).
- FIXA(TU). *mement untan ezniz fixatuco vi lan clasetan beciq* (2.109).
- GOGO. *Nahi. niq ere ezautzera eman gogo dauciet* (2.7); *Vizquitartian gucieq salva-tugogo dute* (3.77).
- GOMENDA(TU). *orri gomendatu zayo* (5.46).
- GUIBELA(TU). *guibelarazten nindien* (1.28).
- GUIDAZALE. *cien Parroco eta artzaina edo guidazalia bezala* (1.14).
- GUIRISTINO. *bana abatziriq guiristinoaq Yaincoaz* (2.9).
- GUISA. *Modu. eta guisa untan inutilaq dira Yaincoaren eta beren buriendaco* (2.77).
- GUTI. *Yzan daiteque menturaz Yaincoa yenerosago guizonequin, eta gutiago iquin contentatu* (2.31).
- GUTICIA. *icusico tucie complituac cien esperanzac eta satisfatuac cien guticiac* (5.77).
- ICITU. *Icitzen niz ministerio edo oficio ain pizu eta delicatu unen obligacioniaq consideratzen yarri-ta* (1.5).
- IGAN. *Igo. Igan niz lecu untara, bana ez lehenagocotan bezala* (1.1).
- IGORRI. *Yaincoaq mundu untara igortzentien punimedien causa* (2.40).

- IGUI(TU). Mugi(tu). *ardiaq vide uneti q ibiltzerat, iguiti behar tien vertuteen argui clar ura?* (1.7).
- INGRATASUN. *Ceren baita ingratasuni q aundieneco becatu bat, eta ingratasuneco becatia q dira arras sensiblia q* (2.30).
- INTERESATU. Irabazbide. *ez distraccionezco yocutan baicican yocu interesatietan* (2.48).
- INTRES. Irabazia. *Icusten tugu anitz intresaz ain dominatia q* (2.16).
- IRAHAZI. *arima q irahazten* (1.18); *indulgencia ori irabaci eta ez inutilizatu gracia ori* (4.39).
- IRAZI. *cer condicionia q necesario diren idulgencia q irazteco* (4.3); *Yndulgencia ori iraz dezaque baco cha q nahi dienian* (4.26).
- IRRISCU. *aimbertze irriscu eta etsaien artean* (5.4).
- LAUDORIO. *zure gloria eta laudorioac publicatzeco* (5.32).
- LIBERTICIONE. *Yanza eta liverticioneta* (2.50); *liberticione eta distraccionia q ez uztiagati q* (2.76).
- MALUROSQUI. *ni q badaquit bertze alde cietai q gueienaq, malurosqui ez gucia q, co-fesatu ciztela Bazco demboran* (3.52).
- MANERA. Modu. *ilun onduan ibiliz behar ezten maneretan* (2.50); *Condu eguitia cien costuma eta vicitza maneraz* (1.51).
- MEMENT. Une. *Mement untan ezniz fixatuco vi lan clasetan beci q* (2.109).
- MENDECA(TU). *ofensac mendecatze co encargatua* (5.44).
- MENTURAZ. Acaso. *Yzan daiteque menturaz Yaincoa Yenerasago?* (2.31).
- MERCHEDÉ. *condahala gracia favore eta merchedez* (5.16).
- MIRA. *ezar dezagun gucie q gure mira principalena gure arimen salvamendia* (1.74).
- MIRAGARRI. *Aldare ortan dugu Orriagaco Mariaren Ymagina miragarria* (5.23).
- MOYEN. Laguntza. *Yaincoa eguiazqui cervitzatu nahi dienari, etzazco faltatzen becatien evitatze co moyena q* (2.188).
- NAUSI(TU). *Vere pasioneac nawsitzera utziric* (5.58).
- OFE. Ohe. *eta esquerra q oono ezpatutze ofia q escartzen etzani q entzute co* (2.68).
- OFREDI. *gucier ofreditzen da* (5.52).
- OHORA. *Vesta eguna q dira Yaincoaren ohoratzeco* (2.8).
- OREN. *eriotze co orenian convertituco niz* (3.83).
- ORRENGATI Q. *orrengati q nua esplicatzera bularen privilegio eta gracia principala q* (4.2).
- ORRIAGA. *Aldare ortan dugu Orriagaco Mariaren Ymagina miragarria* (5.23).
- OTZILARE. *ortzilare gucietan araguiaren yatia* (4.49).
- OSAGARRI. Osasun. *ene osagarria, ene vicia, ene odolaren azquen chortarano pertenecitzen zauciela* (1.50).
- PERMETI(TU). *Salvazale divinoa, etzazula permetitu* (1.49).
- PIAYA. Bidaia. *ereservatzen tuzte piaya q* (2.18).
- PRECISIONE. *costumaz eta batre precisionei q gabe* (2.111).
- PREDICU. *Cein mezetan predicatuco dien, preidui q ezten meza entzute co* (2.70).
- PRESUNA. *nun ez tiren presuna pobria q* (4.53); *presuna orie q erran dut contentatzen dira bacarria q meza entzutiaz* (2.71).
- PUNIMENDU. Kastigatu. *Yaincoa q mundu untara igortzentien punimendien causa* (2.40).
- SACRATU. *Ymagina sacratu ori aguertu cen mementu veretic* (5.28).
- STIFA(TU). *Veren pasione desohoragarria q satifatzen* (2.50); *icusico tucie complituac cien esperanzac eta satifatuac cien guticiac* (5.78).
- SEGURQUI. *ala nahi badute conseguituco dute segurqui* (2.23).

- SOBERA. Gehiegui. *sobera edaten* (1.48); *ycusten dut sobera luzatu viar nuquela* (3.29).
- SOIN. Begiratu. *bana munduco errespetier (veiratu) soingabe* (1.55).
- SOIN. *Inola niq eraman dezaquet ene soin ain flacuaren gainian carga ain icaragarri au?* (1.12).
- SOLDATA. *ez soldataingatic cervitzatzen dienaq bezala* (1.53).
- SOSTENGA(TU). *niq oray erran eta sostengatzen dutana* (2.112).
- SUERTE. Mota. *presuna suerte gucier* (5.11).
- TEMPLO. *dedicatu zacolaric Yerusaleneco Templo aundia* (5.20).
- TENDRETASUN. Beraztasun. *Misericordia eta tendretasun ura?* (1.10).
- TRABAILA(TU). *gorputzaq descansatzeco, eta trabailatzeco arimen gatic* (2.9); *ber-tze batzuaq ofensatzen dute trabailatu gabe* (2.11); *Ez trabailatziagatiq* (2.80); *trabaila diten* (2.84).
- TRAVAILU. *sofritzen abal tuan privacione eta travailu guciaq* (1.62).
- TTIPI. *ezta izanen ingratasun aundi bat ez pagatzia fidelqui obligacione bat ain ttipia?* (1.40).
- UN. On. *Yainco guciz un areq* (3.84).
- UNTASUN. *preferiblia dena munduco untasun gucier, ceren ecartzen dauzquigu gal-tzen abal eztiren eternitaco untasunaq* (3.44).
- URBIL(DU). *Eztayela gueyago urbidu arengana* (5.39); *Parte eztirenaq urbildu Sa-cramendutara* (3.74).
- URBILDANIC. *een pausuac urbildanic icusteco* (5.49).
- UROS. *nahi batucie icusi dembora urosoguaq, veirazquitzie obequi vestaq* (2.121).
- URRUN(DU). *igués eguiten du edo urrunten arenganiq* (3.7).
- VALIOSA. *Baque bat infinitoqui valiosa* (3.44).
- VARUR. *defendiatu da garizuman varur egunetan eta ortzilare gucietan araguiaren yatia* (4.48).
- VEHARRI. *egonen dira idequiaq eta prestatuac ene veharriac* (5.1).
- VEIRA(TU). *Bete, gorde. Yaincoaren leguia veiratziac casuiq eguiten eztutener* (2.120); *veirazquitzie obequi vestaq* (2.121).
- VERTUTE. *vertuteen argui clar ura* (1.7).
- VEZTI. *Veztinezazu, fidatu dazquidazun arima hoq salvatzeco behar tutan gracietaz* (1.80).
- VIDIAN. *Ojala veraz niq cieq instruitu behar vidian pundu untan alegera abal banindaiteque ciequin* (3.49).
- VITARTE. Begitarte. *causi dezaque Yesus onaren baitan vitarte serios bat* (5.42); *Alda-re ortan daucacie vitarte ezti batequin* (5.51).
- VOTZA. *aitzia ene votza* (1.68).
- YAINCOA. *Veste egunaq dira Yaincoaren ohoratzeco* (2.8); *bana ahatziriq guiristinoaq Yaincoaz* (2.9).
- YAIQUI. *auspescatu eta yaiqui dena consolu eta laguntzaric izan gabe* (5.55).
- YAQUINTASUN. *ardiaq alimentatzeco behar den bezalaco yaquintasun ura?* (1.7); *vere yaquintasunaq manifestatzeco autatia* (1.46).
- YARLECU. *Orriagaco Ama Virginac ezarri du vere yar-lecua Eliza untan* (5.47); *Pie-tatezco tronu edo yar-lecu ortara* (5.75).
- YEUS. Deus. *Yeuseq eztee lucitzen* (2.19).
- YEYSERE. Deus ere. *Untan eztut yeusere eguinen baicican complitu ene estatuco obligacioneequin* (1.62).
- YIN. Etorri. *Yiten badira arri erauntsiaq* (2.41).
- YUYAZALE. *ceren den Juez edo yuyazale yusto eta zucena* (5.43).

